

Familia eta bokaziozko orientazioa

Bokaziozko orientazioaren bidez, alde batetik, lan-munduan gazteen sarrera errazten da, euren ahalbidetan, motibazioetan, mugetan eta interesetan oinarriturik eta, bestetik, euren inguruak eskaintzen dizkien erraztasun edota mugak. Beraz, lan garrantzitsua da gazteei aholkatu eta laguntzea euren bokazioa aurkitzeko eta aktibitate kultural edo profesionalerantz orientatzeko.

Bokaziozko orientazioan eragiten duten faktoreak

Gazte bakoitzean eragin dezaketen faktoreen artean, besteak beste, hurrengoak aurki ditzakegu:

1. *Nerabearen motibazioak*. Gaztearen motibazioan bere familia giroak (alor zehatz bat aukeratzeko presioa eginez), bere lagun-taldeak edo, azkenik, bere nahiak eta preferentziek eragina izan dezakete.

2. *Jarrerak*. Jarrerai buruz ari garenean, lan-aukera bati edo besteri era onean edo txarrean erantzuteko joeraz ari gara. Lan bat edo beste batekiko jarrerak eta hauek sortarazten duten iritziak *osagai kognitibo* bat (gaiari buruz irakurri, ikasi... duguna), *osagai afektibo* bat (lan zehatz batek sor ditzaketen sentimendu edo pentsamenduak) eta *portaera osagai* bat du (lan bat edo bestea aukeratzeko joera).

3. *Gaitasun edota ahalmenak*. Pertsona baten adimen gaitasunak (ulermen eta hitz-jarioa, zenbakizkoak, espazialak eta mekanikak, arrazonamendua, oroimena...), gaitasun psikomotoreak, fisikoak, artistikoak eta sentsorialak eta esku-gaitasun zehatzak dira.

4. *Interesak*. Gaitasunekin batera, interesak bokaziozko aukeraren oinarria dira, eta motibazioarekin oso lotura estua dute. Norbere burua gero eta gehiago ezagutu, orduan eta hautapen errealistagoa egingo da eta honek norberaren interesen alorrean gaitasunen hobekuntza erraztu dezake.

Bokaziozko orientazioan eragiten duten faktore sozialak

1. Nerabeek familia, lagun taldea, ikastetxea eta komunikabideen *eragina* jasaten dute. Hauek denek banakako eta taldeko nortasuna sortzen duten ezagutzak transmititzen dituzte.

2. *Ospe soziala eta estereotipoak*. Oro har, lanbide batzuk beste batzuk baino ospe handiagoa dute, hezi den giza-giroaren arabera.

3. *Familia, hezkuntza zentroarekin* batera, pertsonaren giro hurbilena da eta lanbide bat hautatzean eragin positiboa nahiz negatiboa eduki dezake.

LABURBILDUZ

Seme-alaben bokaziozko orientazioaren gaien parte hartzeko, familiek euren seme-alabak lan-alor desberdinetako adituekin harremanetan jar ditzakete. Aditu horiek euren eginbehar profesionalari buruzko informazioa eskaini diezaiekete (lagunak, ezagunak). Era berean, garrantzitsua da etxean gai honi buruz hitz egitea eta seme-alabei erabaki bat hartzen laguntzea.

Dra. Ainhoa Manzano Fernández
Dr. Juan Luis Martín Ayala
ETXADI
Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa
Centro Universitario de Psicología de la Familia